

NUPek Urrezko Domina eman dio William A. Douglassi

Erredakzioa. Iruñea.

Esker ona eta Urrezko Domina. Horixe eman dio Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) William A. Douglass antropologo estatubatuarrari. Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko irakaslea da Douglass, Renon, Ameriketako Estatu Batuetan.

2005. urtean, bere liburutegi osoa NUPeko arduradunen esku uztea erabaki zuen Douglasssek. 6.000 liburutik goitik osatzen dute antropologiaren arloko bilduma hori; euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez idatziak dira.

Euskal Herriarekin harreman estua du irakasleak. 1963. urtetik du lotura Nafarroarekin. Urte hartan Etxalarko baserri batera ailegatu zen antropologoa, eta urtebete eman zuen han. Etxalartik Aulestira joan zen, Bizkaira. Heriotza Aulestin izenburuko liburua idatzi zuen, eta gero, baserrien husteari buruzko beste ikerketa lan bat egin zuen. Nafarroako eta Bizkaiko errealitateak islatu zituen liburu horretan.